


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

60. zenbakia

94ko abenduak 16



Eguberri on!

Apartamendu, etxebizitza, garaje eta merkatal lokalen eraikuntza Ordiziako Euskal Herria kaleko 10. zenbakian. Berehala sartzeko eta ordaintzeko erraztasunekin.

PROMOTOREA:




Tfnoak.: 88 49 50 - 88 49 54
Filipineta, 13- behe esku.
ORDIZIA



MAPFRE

Hirigoien, 18
Tfona: 16 13 61
LAZKAO



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN



JASO EQUIPOS DE OBRAS S.A.

Garabi garaiak eta kargagailuak eraikuntzaren beharrezanean aplikatutako teknologia modernoa

- ◆ **Fabrikazioa**
- ◆ **Salmenta**
- ◆ **Alokatzea**

☎ 18 70 00 - Faxe 18 70 20
N-1, 415 Kma. IDIAZABAL



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Erredakzioa:

Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:

Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
Joseba Telleria, Mari Joxe Ma-
dariaga, J. M. Ormazabal, Iza-
kun Salazar, Ana Irastorza, Jon
Aldanondo, Nagore Goiburu,
Josune Amondarain, Iñaki Mu-
rua, Ander Mujika, Gabino
Murua, Pilare Mujika, Aloña
Galarraga, Aitor Arza eta Santi
Etxeberria.

Azaleko argazkia: Fotoetxe
**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa:** GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 4.000 ale. 3.700 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkiz-
unik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Bisita didaktikoak baserrietara

Goimen Elkartea baserrie-
tarako bisitaldi didaktikoak
hasi zen eratzen orain dela biz-
pahiru urte (oraingo ikastur-
tean hartzen ari da abiada han-
diagoa). Hasiera batean Goierri
Garaiko eskoletako ikasleen-
tzat eratu izan dira gehienbat
bisitaldiok. Orain, Goierri
guztira zabaltzeko eskola guz-
tickin biltzekotan dira Goime-
nekoak.

Irakaskuntzaren ikuspegitik,
ikasleen heziketa globala po-
tentziazatzea, naturarekiko sen-
tikortasuna sortzea, ikasleak
baserri mundura inguratzea,
bertako lanekin familiarizatzea
eta janarien jatorri eta kalita-
teaz jabetzea bilatzen da. Ba-
serriaren ezagupen egoki bat
eduki lezakete ikasleek, beraz,
zuzeneko harremanen bidez,
ezer sortzen ibili gabe.

Nekazal ikuspegitik, berriz,
baserriak beste diru iturri bat
lortzea, bere produktuen ba-
lioaz jabetzea eta kaletarrekiko
harremanak sendotzea. Bes-
talde, baserriak sakonago

formatzeko bide bat da aktibi-
tate gehigarri hau, bere pro-
dukzioa erakutsi dezake, orain
arte zenbait kasutan dohain
egin izan du, nahiko baldintza
prekariotatik, gainera.

Gero eta nabariagoa da hiri-
tarren urruntzea nekazal eta na-
tura ingurutik. Bestalde, ira-
kaskuntzaren erreformak
umearen sormena eta autono-
mia indartuko duenez, experi-
mentazioan gehiago oinarritu
beharko da, eskolez kanpo, na-
turara irtenez. "Gure baserriek
duten egituragatik, hauen
egoera eta etorkizuna gizarte
konpetitibo honetan ez da one-
na, zenbait kasutan beste akti-
bitate osagarri zenbait bila-
tzera behartuta daude: neka-
zariak gizarteari eskein lie-
zaiokeen kultur eta astiari bu-
ruzko zerbitzuak. Bi interes
hauek bildu eta elkar-lana
planteatzen da", dio Joxe Ma-
nuel Zubizarreta eta Xabi Aki-
zuk eginiko txostenak. Guzti
honen berri gehiago emango
dugu hurrengo aleetan.

Besteek esana

ENAMen suizidio ko- lektiboa

"(...) Izan ere, gertakizu-
nen martxa ikusita, gero eta
lemming-en antz gehiago
ematen diot ENAM dela-
koak hartu duen jokabidea-
ri. Ez ditut xeheki aztertuko
batzuen eta besteen hitzak
eta egintzak. Har dezagun
gogoetarako beta, begira
diezaiozun ikuspegi zaba-
lez auziari. Ez al genuen
behin eta berriz esaten, baz-
tertu egin behar zela en-
frentamendu zibilerako
arriskua? Eta orain nor ari
da batez ere hori xaxatzen?

(...) Nik ez dakit nor den gi-
dari, nor den erantzule, ez
dakit ezer KAS eta abarren
barrengoaz ere, baina garbi
ikusten dut norabide honek
galbidera daramala, gara-
matzala. Luzaron itxaron
dut lemazainen mugimen-
dua edo aldaketa, baina,
horrelakorik ez dagoela
ikusirik, nik, aldeaz edo
moldez partaide izan naizen
honek, publikoki adierazten
dut jaitsi egiten naizela tren-
etik, barkutik edo leming-
saldo honetatik.

**Xabier Mendiguren Eli-
zegik "Egunkaria"n, 94-
XI-30.**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ordizia

Inor gutxi jarriko du gaur egun zailantzan Ordizia izenaren jatortasuna, baina baldin oraindik norbait balego asmakizun berria delakoan, hemen daude 1913 urtean Tolosako Lopez Mendizabal etxeak argitaratutako "Nere bidean" liburuan azaltzen diren Emeterio Arrese olerkariaren bertsoak. Ordizia du izenburu eta "Erri ontako abeslariyak eskatu ta idatzia" dira. "-Agur, agur, Ordizia/ erri maiteari,/ agur, alai t'argiro/ dagon tokiyari;/ ainbeste seme jator/ eman ditunari/ begiramen osoaz/ agur, agur beti!". Usurbe eta "Oyanguren-baserri/ untzaz apaindua,/ Andres Urdaneta'ren seaska dontsua" ere aipatzen ditu.

J.J. Iraeta (Zaldibia)

Alfabetatu gabeak

Euskaraz ederki adierazten dut pentsatzen dudana edo nahi dudana hori; euskara izaki nire ama-hizkuntza, euskaraz eskolatu eta alfabetatu nintzen (haur eskolatik hasi eta unibertsitatik ikasketak amaitu arte) eta euskal giro batean bizi naizenez (etxean, lantokian, lagunartean...), gehienez euskaraz pentsatu eta pentsatutakoa adierazten dut, ahoz nahiz idatziz.

Gaztelera ere jakin, badakit. Hurbil-hurbileko hizkuntza dugu gaztelera Euskal Herrian eta zenbaitzuek nahi du-

guna baino ugariagoa, presenteei dagoen horretan dextente moldatzen naiz. Frantsesera ere ulertu, ulertzen du, jakin ez badakit ere, Frantzia, Espainia bezalaxe E.H.-tik hurbil baitago, elkarri erantsita baitaude eta batetik bestera noiznahi ibiltzen baikara, ikasteko aukera eta beharra sentituz. Frantsesera eta gaztelera, gutxi edo gehiago, ulertzen baditut ere, euskaraz pentsatu eta bizi naizenez, erraztasunik gabe, traketts, poliki eta zenbaitetan gaizki hitz egiten ditut. Hortaz erabat kontziente naiz eta estuasun, larritasun, lotsa eta beldurra senti ohi dut erdaraz (hizkuntza arrotzak) hitz egin beharrean aurkitzen naizenean.

Lagunartean ere lotsagarri geratzen gara erdaraz hitz egiten dugunean. Esan bezala horretaz kontziente naiz eta badakit nire lana dela, eta ez beste inorena, inguruko herrietako hizkuntzak ikastea; zenbat eta gehiago, hobeto.

Nire harridura eta haserrea pizten duena, ordea, zera izaten da: hainbat pertsona publiko, politiko eta ez-politiko, jendaurrean euskaraz hitz egiten hasten direnean, eta alde batera uzten ditut euskaraz ezer jakin ez eta blitiblasta erdaraz aritzen direnak, ze traketts, narrats eta gaizki hitz egiten duten entzutea. Lasai-lasai aritzen dira gainera, lotsarik batere gabe; eta, agian okerragoa dena, "saiazen direla behintzat" eta guk erabat onartzen ditugu... Eten gabe jendaurrean eta komunika-

bideetan hitz egitea tokatuko balitzait niri, Espainian eta gaztelera, gai izango ote nintzateke orain hitz egiten dudan bezala hitz eginez agertzeko? Ez; ezta pentsatu ere! Berehala saiatuko nintzateke ikasten, lantzen eta erraztasuna hartzen.


Amaitzeko: eska eta exiji diezaiegun pertsonaia publikoei euskaraz alfabetatu eta txukun antzera hitz egin dezatela eta, aldi berean, ikasteak inori kalterik egiten ez badio ere, ez gaitezen gehiegi lotsa eta kokildu, Euskal Herrian bizi eta gaztelera eta frantseseraz aritzeko erraztasunik ez dugunok.

Aitor (Lazkao)

Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura (ezizenez ere izenpetu liteke) eman beharko dira.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

KUKO

Jantetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

DAROU MOUSTY




Opari gaiak:

gerrikoak
boltsak
arropa hippyak.
Afrikar eskulanak

P-21 beheko solairua ☎ 88 96 96 ORDIZIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfnoa: 880543 BEASAIN

Intereseko Telefonoak

LAZKAO

Udaletxea	886408
Ertzantza	887350
Anbulategia	888755/882632
Gurutze Gorria	272222
D.Y.A.	464622
Larrialdiak	880967
Suhiltzaileak	881362
Maizpide Euskaltegia	889231
A.E.K. Euskaltegia	889340
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800
Parrokia	880229
Sarasola Autobusak	880259
RENFE	880853
Polikiroldegia	160934
Goiherriko Euskal Eskola	160282

Errezeta



Romani Arizkorrek
tak emana
Joxepane Jatetxea
Zaldibia

GAZTAINA PUDINA

Osagaiak:

300 gr. gaztaina egosia,
litro 1/2 esne, 5 arraultza,
baso 1/2 esne gain eta
azukrea norberaren gustora

Gaztaina egosiak txikitu
eta osagai guztiekin batera
turmix-az nahasten dira.
Ondoren, molde errektan-
gular batean jarri eta labean
sartzen da "baño maria"n.

Labean 15-20 minutu inguru
edukitzen da, beste edozein
pudin bezala. Labearen ara-
bera gehiago edo gutxiago
egon beharko du eta orratz
batekin ikusten da noiz da-
goen eginda.

Mahairatzeko orduan era
askotara egin liteke: bera ba-
karrik, mermelada eta esne-
gainarekin, intxaur saltsare-
kin... bakoitzaren gustora.

Bota bertsoa



Aitor Sarriegi
Gaia: Gabonak
Doinua: Hogeita lauga-
rrena

Hogeita laugarrena dugu abenduan
giroa aldatu da Gabon inguruan
kaleetan kantari hasteko orduan
horrelakorik ez da izango munduan.

Olentzero heldu da denon pozerako
zakutik zer ote du aurten aterako?
ea gutxienetik otsail alderako
esperantza dakarren ikasleontzako.

Urte zaharrak berria badakar berekin
bakoitzak bererako egiten dugu zin
umeak berriz pozik hiruerregeekin
ez baitute nahikoa Olentzerorekin.

Sutondoko epela, berriz hostu dela
berriz badatorrela, Gabonen eskela
gertatu da horrela, nolatan bestela?
Gabonak joan direla, etorri bezela.




**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA

gaur
express
mezulariak

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

Tfona: 88 77 90 Faxa: 88 82 67
Mallotz- 25. Pab. ORDIZIA

Lazkao txiki
gizon txikiaren hamditasuna



Lazkao Txikiren ilobek idatzitako liburua

erein argitaletxea

☎ 21 83 00
21 82 11

Tolosa Etorbidea, 107
DONOSTIA

Debaldeko iragarkiak

Lana

□ Neska euskaldun bat eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperimentatzen. Telefonoa: 180413 (Ana).

□ Unibertsitariak OHoko klaseak ematen ditu euskaraz eta erdaraz. Umeen esperimentzia. Ekonomikoa. 884795. (Ordizia)

Salerosketak

□ Opel Corsa saltzen da. Egoera onean eta iratiarekin. Informazio gehiagorako dei 881952 telefonora.

□ Kerosenozko berogailua saltzen da prezio onean. 888628.

□ GOIERRITARRAren propaganda, ez garestiena, bai onena! Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. Merke merke sartuko zara 4.000 txokotan (14.000 irakurle). Dei 889612ra (zure inprenta-lanak ere egingo ditugu, behin eta ondo).

□ Goi-mendiko zakua salgai, lumaduna, berri-berria, salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 889612ra, Mikel.

Etxebizitzak

□ Pisua alokatzen da Beasaingo Igartza-Oleta kalean. Berogailuarekin. Egutera. Sukaldea jantzita. 889640.

□ Beasainen pisu bat dago salgai. Polita, eguzkitsua, eta lau haizeetara begiratzeko modukoa. 888685 telefonora deitu, arratsaldean.

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Abenduak 27, Maskarada antzerki taldearen "Logalea zeukan ekilibristaren saioa" lana Usurbe Antzokian, arratsaldeko 5etan. Sarrera 300pzta.

✓ Lazkao:

Abenduak 28, Maskarada taldearen "Kontrabajua" antzeslana, S. Benito Ikastolako areto nagusian, gaueko 9,30etan.

BERTSOAK

✓ Idiazabal:

Abenduak 17, Joxe Elorza 'Joxpi'-ren aldeko bertso jaialdia, S. Lizaso, A. Egaña, Euzkitze, Peñagarikano, Mendizabal eta F. Goibururekin. Igarondo pilotalekuan, 22.30etan.

✓ Lazkao

Abenduak 20, Jose Ramon Elortza eta Xabier Zerberio bertsolariak Maizpiden, afal ondoren.

MUSIKA

✓ Beasain:

Abenduak 17, Beasaingo Musika Eskolako orkestra eta abesbatzaren kontzertua Andra Mari Parrokian, 20.30etan.

Egutegiak



Abenduak 18, Oskorri, Kepa Junkera eta Kukubiltzo taldeek 'Katuen testamentua' jaialdia eskainiko dute, Antzizar Kiroldegian, 19.00etan. Sarrerak: Umeak 600 eta helduak 1.000 pzta.

Abenduak 24, Loinatz Abesbatzak Eguberri eguneko Meza Nagusian kantatuko du.

Abenduak 29, Golden Apple Quarter Usurbe Antzokian 8etan. Sarrera 800pzta.

✓ Ordizia:

Abenduak 18, Santa Ana eta Santa Ana Txikiren kontzertua Elizan, 20.00etan.

Abenduaren 19tik 22ra, Interprete Gazteen zikloa Barrena Kultur Etxean, 19.30etan.

Abenduak 25, Beti Argi Musika Bandarekin Gabonetako kontzertua Plaza Nagusian, 13.00etan.

DANTZA

✓ Beasain:

Abenduak 28, Traspasos Dantza Taldeak "Sombrias" lana eskeiniko du Usurbe Antzokian, 8etan. Sarrera 500pzta.

ZINEA

✓ Beasain:

Abenduak 17, 'Non dago Wally?' Murumendi ikas-tetxean, 16.30etan.

Abenduak 18, 'Elurrezko gizona eta lokomotora txikia' La Sallen, 16.30etan.

✓ Ordizia:

Ostirala 16, "Dias contados", 10,15.

Larunbata 17, "Dias contados. 7,30-10,15.

Igandea 18, "Viaje al corazón de la Tierra", 4,45. "Dias contados", 7,30-10,15.

Astelehena 19, "Dias contados", 7,30.

Ostirala 23, "La sombra", 7,30-10,15.

Igandea 25, "La sombra", 7,30-10,15.

HITZALDIAK

✓ Beasain:

Abenduak 16, euskal prentsari buruzko mahain-gurua 'Ai geala' euskara

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

taldeak antolaturik, 19.30etan, Udaletxeko Bazar- Aretoan. Hizlariak: Elhuyarreko Eustakio Arrojeria, Jakineko Joan Mari Torrealdei eta Argia-ko Pello Zubiria.

BESTELAKOAK

✓ Ordizia:

Abenduaren 27tik 30era, 'Gabonetako ipuinak' Arrate Leundaren eskutik, Barrena Kultur Etxean, 11.00etan.

✓ Ataun:

Abenduak 17 eta 18, San Gregorioko eskoletan Irratizaleen 24 orduko saioa eta irrati zaharren ereusketa.

Abenduak 23, Eguerdiko 2,30etan Joxemiel Barandiaran Eskolan ipuin-lehiaketako sari-banaketa eta ondoren txo-txongilo saioa. Iluntzeko 8,30 etan Udaletxeko ganbaran "Gipuzkoa 1915" diaporama. Dena Joxemiel Barandiaranen 3. urtemugako ospakizun-
nen barruan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Abenduaren 30era arte, Aterpe Tabernako III. Pintura Lehiaketan aukeratu-tako lanen erakusketa, Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Abenduaren 21era arte, Francisco Javier Sotoren pintura erakusketa.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 18, Gorbeia (1.481 m.) mendi-irteera.

Idiazabalgo mendizaleak:

Abenduak 18, Zumaia-Orio ibilaldia.

GOARDIAKO BOTIKAK:

Abenduak 16: Cuesta; *17-18-19*: Arriola; *20*: Urbizu; *21*: Atorrasagasti; *22*: Azpilikueta; *23*: Arriola; *24-25*: Urbizu; *26*: Laur-naga; *27*: Cuesta; *28*: Arriola; *29*: Urbizu.



Angulak 23.000 pezetan

Gabon kutsua gero eta nabariagoa da eta horren adibide, Ordiziara heldutako lehen angulak izan ziren. 23.000 pezetan jarri ziren salgai. Gabiriako kapoiak ere izan genituen, 1.200ean salduak. Pazkuatako lorea (800-850) eta gabon pinua (500-1.200) ere ugariak izan ziren.

Dena den, Gabonetako azoka aparta 21ean egin ordez, 28an izango da, Santo Tomas egunarekin bat ez etortzearen.

147 arkume azaldu bazi-
ren ere, ez zuten asko iraun.
500-525-600 pzta. bitartean
saldu ziren. **Ehizari** dago-
kionez, birigarroak 100ean
eta oilagorak 2.000 ingu-
ruan saldu ziren. **Perretxi-**

kuetan, onddoak izan ziren
ugarienak. 30 kilo azaldu
ziren, eta 3.000ean saldu zi-
ren. Gibelurdin eta gamuza
gutxi azaldu ziren.

Bertako produktuetan,
intxaurrak 450-550; errezil
sagarak 100-400; lekak
350; tomateak 250-300 eta
azalora 125-175.

Kanpoko produktuei
dagokienean, tomateak jait-
si egin zen 200-225era; lekak
400-450; kiwiak 125-225;
gaztainak 250-275; pina
200-250.

Arrainak orokorrean
gora egin zuen. Legatza as-
ko-igo zen, 2.350era; media-
na 1.850; Tarragona ingu-
ruko antxoak 780-850 eta
txitxarroa 580-850an.

Ana Irastorza



Serragi

TAPIZ DENDA
DEKORAZIOA

Goierrri, 12

ORDIZIA

☎ 88 31 53

Esteban Lasa Kalea, 5
Tfnoa. eta Faxe: 88 97 95

BEASAIN

Urlo

HALTZARIAK



Puenteak direlata lata lata...

Abenduko aste puentetsu zeblebre hau dela medio, Autonomi Elkartean 25.000 milioi galduko omen dira. Jesus! Hau da milioi piloa ateratzen dutena hauek batzutan. Ez dituzte bada zeroak aterako milioien ordezt? Errezena hori da! Guri hala azaltzen zaizkigu hasten garenean.

Harritzen nauena da nola dakiten hain zehatz dato hori. Zergatik ote da beti galeren berri derrepente jakitea eta irabaziena sekula ez? Gainera ez dakit hainbeste galdu ote litekeen, leku askotan baitago ditzosozko "korreturrosa" eta beste zenbaitetan larunbat, igande eta jai egunak, lanegun hartu dituzte, argindarra merkeago delako egun horietan. Lan-tegi horiek aste normaletan baino gehiago irabaziko dute, ez? Besteetan berriz urte osoko lan orduak aurrez hitzartutakoak izango dira, puente egin edo ez ezta? Hostelerian ere galdu egingo al dute? Argi dago ez naizela batere argia! Dena den saltsa hau konpondu ezinak adierazten didanez, ez naiz argia ez den bakarra. Eleiza eta Gobernuaren arteko norgehiagokatik, denok aterako omen gara gaitzaile baina badirudi egunkarietako titularrak irakurriz gero, langileok gaila gainera errudunak. Ez al dira benetako errudun Eleiza eta Gobernuak?

Nik benetan garrantzia ematen diodan galera, puentean errepidean bizia galduko dutenena da. Horiek ez dute galdutakoa berreskuratzeko aukerarik izango, baina hala ere, galera aipamenetan 25.000 milioiak, bizi galera horiek baino nabarmenago azaltzen zaizkigu. Zergatik ote?

↳ **Iñaki Murua**

Gabonak gustatzen al zaizkizu?



Markel Lizarralde
14 urte, ikaslea
idiazabalدارra

Bai, gustatzen zaizkit. Oporrak izaten ditugu eta denbora gehiago daukat lagunekin egoteko. Gainera opariak ere izaten dira. Baina bazkari haundi horiek ez zaizkit gehiegi gustatzen.



Jorge del Alamo
19 urte, ikaslea
idiazabalدارra

Bai, noski. Familia osoarekin biltzeko garaia izaten dira, eta esan nahi haundia dauka horrek niretzat. Erlijio inguruko festa bada ere, alde horretatik ez dit asko esaten.



Juliana Auzmendi
55 urte, dendaria
ataundar Ordiziaratua

Asko gustatzen zaizkit, oso garrantzitsuak dira, familia osoa elkartzen garelako. Ospatze-ko era aldatzen ari bada ere, guk usuario zaharrea ospatzen dugu, ahal dugun artean behintzat.



Goierritarron txistekak



Ordiziako Perian

Ordiziako ferreteri batera goierritar epel bat sartu eta honela dio:
--Emaidazu agudo sagu-zepo bat, trena harrapatu behar dut eta.

Dantzalekuan

Igande arratsaldean Egan taldekoak hor ari dira Gure Txokoa dantzalekuan musika tresnak atzeko atetik sartzen. Gontzalo oso berandu dator eta sarrera nagusitik presaka sartzer doanean, atezainak:

--E, txo! Hire sarrera?!

--Ez, ez, ni jotzera netorrek.

--Hara bestea, hi! Gainontzekoak zertara etortzen direla uste duk ba?



Zure edertasuna
zaintzen dugu!

Solariuma
Depilazioa
Garbiketak
Azkazar postizoak
Makilaia
Manikurak

Aloska

EDERGINTZA eta USAINDEGIA

Domingo Unanue plaza, 2
Tfona: 88 24 10 ORDIZIA



S. A.

liburudenda

- ⇒ Liburuak
- ⇒ Jostailu didaktikoak
- ⇒ Eskola materiala
- ⇒ Bulego materiala

Elosegi, 16
Tfnoa.: 88 65 00
LAZKAO



BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi kalea, 4
Tfnoa: 880406
ORDIZIA



AHTren Aurkako Asanblada

“Giza barbariearen adierazgarri diren AHT bezalako proiektuen aurka egin behar dugu geure indar guztiekin”

Beste munstro batek mehatxatzen du Euskal Herria: AHT edo Abiadura Handiko Trenak, alegia. Egitasmo faraonikoa dugu, ikaragarri garestia eta ingurugiro eraso itzela eragingo duena. Gure herria alderik alde jada zeharkatzen duten eta gerora bertan proiektaturik dauzkaten azpiegituren sare neurrigabea gehitzen zaio: superportua, autobideak, e.a. Orain arte naturaren kontra egindako erasorik bortitzenetakoa ekarriko luke AHTren burutzapenak lurraldearen zabaltasun osoan, gizabanakoen eta oro har euskal gizartearen aurkako ekintza gogorra suposatuko duen bezalaxe. Bere bultzatzaileek AHT krisi ekonomikotik irtetzeko eta E.H. modernizatzearen balizko pieza garrantzitsutzat agertzen diguten bitartean, errealki egungo arazo ekonomiko, sozial eta ekologikoak larriagotu egingo dira zalantzarik gabe. Kapitalismo neoliberal, basati, teknokratiko, erraldoi, nuklearizatu, harrapatzaile, marjinazio zein pobrezia sortzaile, eta gizarte desegituratzailearen ezarpena bait dugu lehenengo eta behin AHT, aurrerapena aitzaki eta ingurunearekiko errespetagarritasuna estalki gisa jartzen badizkiote ere.

AHTren kalte garrantzitsuak

Tunelak: Aralarren 11 km.-etako tunela. Malloaketatik sartuz (Errazkinetik) Sakanaan aterako da. E.H.-n 128 km. tunel egin nahi dute, lurrazpiko bizia erabat txikituz. Egitasmo basati honek 443 km. AHTren

AHTren aurka Goierrin ere

ibilbidearen eraikuntza aurrizkusten du E.H.-ko lurrazalera txikian. **Aurrekontua:** egitasmo osoaren kostu ekonomikoa izugarria izango da: 700.000 milioietan aurrizkusten da jada gaur, eta zifra hau 3-4 aldiz biderkatu daitekeela gauza ziurra da, 2 bilioi ingurura helduz beraz, herri lan garrantzitsuetan gertatu ohi denez. **Energia:** egungo trenak baino 10 aldiz gehiago kontsumituko luke. Hau da, gaur E.H.-an kontsumitzen den energiaren %2tik %20ra pasatuko litzateke. Guzti hau lortzeko energi iturri desberdinak erabiltzea eskatzen du: %70 nuklearra (Frantziari erosita); %25 gas naturala; %5 hidraulikoa.

AHTren itxitura eta isolamendua ezinbestekoa da, arriskugarritasun arazoak direla eta, 25 metrotik gorako lurzabalerak okupatuz eta ondorioz lurraldea erabat erdibituz. Lurzabalera guzti honetan zuhaitzak eta landareak hazi ez daitezten pestizidak erabiliko dira toneladaka. RENFEk bertan behera utziko luke behin betirako ohizko trenbide azpiegitura, gaur egun geroz eta egoera kaxkarragoan eta etorkizunari begira galbidean dagoelarik tren arrunta, inbertsio guztiak autoaren erabilpenari zuzenduriko azpiegiturretan, errepidezko garraiogintzan eta AHTan

bertan xahutzen dituen garraio politikaren ondorioz.

Goierriko zenbait datu

Tunelak: Itsasondo-Mariaratz tunela, 2.650 m.; Beasaingo tunela, 1.750 m.; Ormaiztegiko tunela 2.100 m.

Biaduktoak: Mariaratzeko (Ordizia) biaduktoa, 60 x 30 m.; S. Martingo (Beasain) biaduktoa; Beasaingo “Cementos Rezola” inguruko biaduktoa.

Betelanak: Ordiziako Zabale baserriaren ingurutan; Beasaingo Ezkiaga auzoan; Beasaingo “Cementos Rezola” eta S. Martin ermittaren ingurutan;

Aparkalekua: Ezkio-Itsason kokatua, izugarritzko lurzabalerak okupatuz.

Beraz, geure indar guztiekin giza barbariaren adierazgarri diren AHT bezalako proiektuen gauzaperari aurka egin behar diegu eta bere beharrianak naturarekin harmonian asetu, produzitu eta bizitzeko gai izango den gizarte aske eta bizilagun librez osaturikoari bide eman. Salatu egiten dugu urte guztietan instituzioek AHT proiektuaren garapenari buruz ezarritako prozesu zeharo iluna, erabateko sekretismoa, eta biztanlegoaren gutxieneko informazio eskubidearen zapuzketa. Hala bada AHT oso gauza urruna irudi ohi zaigu eta komunikabideetan gisa deformatuan soilik agertzen digute. Animatu zaitez, beraz, AHTren aurkako oposaketa mugimendu kolektibo eta asanblearioan parte hartzera, herritar sentsibilizazioa eta autoeraketa bultzatuz.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

**Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN**

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

Ezkio-Itsasoko Pott Keramikakoein

Maite Salutregi eibartarra eta Jone Urain mendaroarra, etorri berri dira Ezkio-Itsasora aldera. Pott Keramikak tailerra jarri dute Itsasoko plazan, eskola zaharretan. "Zeramikak beti izan da arte munduan beti ahizparik txikiena, gaur egun oraindik ez dauka lekurik, baina gu afizioarekin hasi ginen eta hemen gaude", azpimarratu digute.



du honek? izaten da lehen galdera. Beraz, apaingarrietarako gauzek ez dute arrakastarik".

Zeramikak lau gauza uztartzen ditu: ura, lurra, sua eta airea. "Lurra buztina delako, gero lehortu egin behar da, ondoren esmaltea ematen zaio eta azkenik labera dihoa", adierazi digute. Sua da agintzen duena. "Azkenean suaren ikutuak agintzen du. Tenperaturaren arabera materialak eta koloreak erabili behar izaten dira", gaineratu dute.

Munduan pieza bakarra

Zeramikak ez da garestia bikote honen ustez. "Lan asko eta ordu asko sartu behar dira. Materialak oso garestiak dira. Gainera, munduan pieza bakarra dela pentsatu behar da, kolorea ez dela beste inon lortuko, eskuz eginga dagoela... Beraz, ez da garestia. Merkaturako oso zabaldua dago. Txinatik... zeramikak ekartzen dute, oso merkea, baina lantegi handietan egindakoak izaten dira. Hemen ordea, denak banan-ban egiten dira, munduan bakarra dena, balio bat daukana da. Horregatik zeramikak benetan apreziatzen duenak erosten du, erosle honentzat ez baita garestia".

Enkarguak hartu eta egiten dituzte. Udaletxe eta enpresetarako trofeoak egiten ari dira. "Oso lan kreatiboa da. Jendea nahiko aspertuta dago betiko plaka eta kopekin. Eta hau berria denez, jendeak gogoz hartu du". Artisau ferietan parte hartu, eskoletan klaseak eman




eta ikastaroak ere antolatzen dituzte eta artisau ferietan ere parte hartzen dute. Ezkio-Itsason haur eta helduentzako ikastaroak egiten dituzte urtero, Udalak uzten dien lokalaren truke. "Herrian zeramika giroa sortu dugu. Arrakasta handia dute. Umeak gustora etortzen dira, herriko ume guztiak elkartzen baitira. Helduek zeramikarako gai ez direla uste izaten dute hasieran. Baina gero, harrituta eta gustora gelditzen dira egiten dutenarekin. Guretzat ere oso positiboa da", aitortu digute.

Itsaso, leku aproposa

Debako Artesano-Ikastegian hasi ziren zeramikan eta titulua ateratzera Valentziara joan ziren. Hantxe erosi zituzten labea eta tornoa. "Gure ideia tailerra sortzea zen. Leku bila hasi eta hemen gaude. Leku aproposa da. Argitasun eta lasaitasun handia dugu hemen".

Zeramikaren inguruan interesa duena Itsasora euren tailerra ikustera hurbiltzeko gonbitea luzatu dute. Baina hori bai, joan aurretik dei dezazuela eskatzen dute. Telefonoa 58 20 03.

L. A. eta A. M.



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnua: 88 94 82
20200 BEASAIN

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

REHAU

AZKARATE

POL. INDUSTRIAL IBABE

TFNO.. 88 81 01 LAZKAO

Ba al dakizu...?



□ EZINDUEN LAN INTE- GRAZIO AINTZINDARIA

mar-txan jarri berri du Goierri Lanbide Eskolak. G.H.E. Fundazioak eskeintzen dituen formazio zerbitzuen artean, garrantzia berezia ematen zaie Hezkuntz Premi Bereziko ikasleei. Beraingana hurbiltzen diren halako ikasleak, lehenik, Goierri Eskolan aritzen dira gelako profesionalen laguntzaz, formazio teorikoa eta praktikoa tartekatuz ikasle arrunten artean guztiz integratuta. Gero Lanbide Hastapen Tailerretan heziketa profesionala bereganatzen dute ahal den neurrian. Ikasturte honetarako Lanbide Hastapen Tailerretan lan munduan sartzeko zailtasunak zituzten 5 ikasle zeudela ikusirik, Gureak-ekin lankidetzat hitzarmena sinatu du Goerri, ikasle horien lan praktikak era egokiagoan burutu daitezken. Ezinduentzako enplegu gidatua deritzan hau, Estatu Batuetan aspaldidanik mar-txan dagoen proiektua bada ere, gure artean Goierri da aintzindari. Proiektu hau gauzatu dadin, ezinbestekoa izan da CAF eta Eun Apalak lantegien laguntza, bertan ikasle bana ari dira.

□ CAF-EK HONG KON-


Geko trenbiderako 30.000 milioiko kontratua lortu du. AEG enpresarekin batera 127 ibilgailu egingo ditu Goierriko etxeak eta kontratu honi esker eskari zorroa gehitu egingo du (kontratu

hau sinatu aurretik ia 70.000 milioikoa zen).

tik Beasaingo Kateara, etorkizuneko trenaren ibilbidea nondik pasatuko litzatekeen ikusteko.

□ OILASKOEN HILTE- GIA ZERAINEN

eraiki behar zela aurreratu genuen. Basoilek elkarteak datorren urtearen hasieran martxan jarriko duela erabaki du eta beren produzioa eramango dute bertara. Helburutzat, prozesu osoa kontrolatzea, kalitatea mantentzea eta kontsumitzaileei gero eta produktu hobeak ematea dituzte. Basoilek-ek bi urte daramatza lanean eta produzitzen dituzten oilaskoek labela lortua dute.



□ GOIERRIKO AHT-REN AURKAKO ASANBLADA

herri-tarrei informazioa zabaltzen ari zaie. Horretarako Ordizia, Beasain, Itsasondo, Zaldibia eta Lazkaon mahaiak eta panelak jartzen dituzte igandero. 1996an hasi eta 2007an bukatuko litzateke AHTren obra; bere aurkakoak aspalditxoan eraturik eta martxak eginez dabilta. Goierriin urtarilaren 15ean egingo da martxa Itsasondoko geltoki-

□ GIPUZKOAKO SUHIL- TZAILEEAK

mobilizazio kanpaina batekin hasiak dira. "Onartezinak diren lan kondizio batzuk dekretu bidez inposatu nahi dizkigute", salatzen dute: bakoitzak nahi duen herrian bizitzeko eskubidea, nahitaez "buscapersonas" bidez lan bikoitza egitea, egutegi inposatua, e.a. "Suhiltzaile gehiago eta ez diru gehiago" eskatzen dute.



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



GOIATGI
OKINDEGIA
Ogigintzan
onenak!!

Etkezaretza z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

MANU URKIOLA
BEASAINARRA ETXEAN da 6 urte kartzelan pasa eta gero. Kartzelan sartu eta lau urte t'erdia beasainarra libre utzi zuten, baina kalean zela, berriro preso hartu zuten bere kondena osorik bete zezan. Azken urteak Martutene eta Badajozen pasa ditu.



AITOR FURUNDARENA ordiziarra bigarren sailkatu zen Arrasateko II. Nazioarteko Akordeoi lehiaketan. Europa guztitik barrena dabilen 24 urteko gazte honi italiar bat aurreratu zitzaion.

94KO IGARTZA SARRIAK banatu ziren abenduaren 3an Beasaingo Udaletxean. Bertako Udala eta CAF dira Igartza abentura eta misteriozko nobela lehiaketako antolatzaileak eta bertan izan ziren, besteak beste, Jose Luis Arriola Beasaingo Alkatea, CAFeko zuzendari den Andres Ariz-

korreta eta Juan Gastesi pertsonal-burua, Euskara Batzordeko Jon Gorrotxategi, Joxemari Iturralde eta Koro Navarro epaimahaikideak (Pako Aristik ez zuen etortzerik izan) eta "Elkar"eko Joxean Ormazabal. Aurtengoan Jon Arretxe basauriarra izan da irabazlea eta larunbateko ekitaldian 500.000 pezetako saria, Igartza trofeoa eta diploma jaso zituen. "Elkar"ek laister argitaratuko du "Tubabu" izeneko nobela saritua. Idazleak, nobelaren ardatz den bidaia biziarazten dio irakurleari, kontakizunarekiko interesa bukaera arte mantenduz. Xehetasunak zaindu eta kontaketa era naturalean azaleratzen du. CAFeko zuzendariak, industri-munduan ere imajinazioa bultzatzea ona dela esan zuen, geroz eta misterio gutxiago geratzen den mundu honetan. 9 idazlan bakarrik lehiatu badira ere, Udalak eta CAFek elkar-lan giro horretan jarraitzeko asmoa azaldu dute.

Aurreko aleko Durangoko azokako erreportaiaren zenbait Goierriko itzultzaile aipatzea ahaztu zitzaigun, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako "Literatura Unibertsala" bildumakoak, hain zuzen: Irene Aldasoro idiazabalarrera, James Joyceren "Artistaren gaztetako portreta" eta Lawrenceren "Birjina eta ijitoa" itzuli dituenak; Jesus Mari Lasa, Beasaingo Garin auzoan jaioa 55ean. ETB sortuz gero gidioien itzulpengintza, e.a.-etan dabilena, Dos-toievskyren "Bihotz ahula", Aitmatov-

ven "Lehenengo maisua" eta Ea de Queirozen "Mandarin zaharra"ren itzultzaileak. Bukatzeko, ezin aipamenik gabe utzi Tomas Sarasola altzagarra (39an jaioa), hamaika itzulpen burutu dituena. Bukatzeko esan, Idiazabalen jaioetako Pilar Iparragirrek Likiniano euskal anarkista historikoaren bizitza jarri duela "Ezina ekinez egina" liburuan (Txalaparta).

MARRON VINSON MENDIAN (4.897 m.). Seigarren helburua, abenduaren 5ean igo zuen, eguraldia oso lagun izan ez bazuen ere. Hurrengo helburua, urtea amaitu aurretik Aconcagua (6.960 m.) igotzea du. Zorionak eta zorte on!

ORMAIZTEGIKO ZIKLOKROSSEAN katedeteen mailan Beñat Garaialde beasainarrak irabazi zuen. 2.200 metroko zirkuituari 6 bira eman zitzioten eta bertan Iberdrola taldeko gaztea izan zen lehena, karrera bikaina burutu ondoren.

BEASAIN-ALBACETE Errege Kopako partidua aurreratu egin da, ligako geldialdia aprobetxatuaz. Hilak 18, igandean, arratsaldeko 15.30etan jokatu da. Periko Alonso entrenatzaileak aurreratu duenez, azken txistua entzun arte borrokatuko dute.

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
 Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
 ☎ 88 80 23

LAZKAO

CALVILLO GESTORIA

(Bandres Gestoria ohia)
UAP Aseguruak

Goierri Kalea

☎ 88 12 58

ORDIZIA

MARRON — ZAZPI HAUNDIAK

- ▲ Everest 8.848 m. — 1993-5-6
- ▲ Kilimanjaro 5.895 m. — 1994-5-3
- ▲ Makinley 6.236 m. — 1994-6-8
- ▲ Elbruk 5.633 m — 1994-7-25
- ▲ Kartenz Piramideak 5.542 m - 1994-10-26
- ▲ Vinson 4.897 m. - 1994-12-5
- ▲ Aconcagua 6.960 m.

Zorionak
 Marron



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA
 Oriako Pasealekua, 20
 Tfonoa: 88 87 02
BEASAIN

Eguberriak sua eta uraren inguruan

Hementxe ditugu bai, batzuei hainbeste gustatu eta besteek hainbeste gorrotatzen dituzten Gabonak edo Eguberriak. Hau da, abenduak 24 eta 25, fetxa seinalatuak. Eguberri izena Gabon izena baino zaharragoa da. Zenbait autoreren arabera, Eguberri=Egun-berri XII. eta XV. mendetik dator, eguzki-berritik hain zuzen ere. Izan ere, eguzkiaren solstizioaren fase berria hasten baita. Orduan hasten dira egunak luzatzen. Gure arbasoek horixe ospatzen zuten abenduaren 24 eta 25ean. Gerora dena den, kristautasunaren eraginez, Jesukristoren jaiotza ospatzeko erabiltzen dira Eguberriak.

Olentzaro izan zen hain zuzen ere, Jesusen jaiotzaren berri ematera menditik jaitsi zena. Gabon-gaua eta neguko solstizioa irudikatzen duen Euskal Herriko pertsonaia da ikazkin, begi gorri, tripa haundi hori. Olentzaro izen eta jatorriaren berri ematen duten teoria desberdinak daude; "pertsona onen maila gorena" edo "gauza onen garaia" esan nahi omen du eta jatorri desberdinak eman bazaizkio ere, Lesaka aipatzen da jatorri bezala.



Sua eta ura

Bai udako, bai neguko solstizioan euskaldunak suaren inguruan bildu izan dira historian zehar. San Juan bezperan San Juan suaren inguruan festa egiten da. Gabonetako ohitura galduz joan bada ere, familia suaren ondoan biltzeko ohitura aspaldikoa da. Orixe euskal idazleak idatzi zuenaren arabera, ondo aukeratutako bi egur, 'bazter egur' deituak, Jesus haurtxoari eta Mariari eskaintzen zitzaizkion, gaitz gaiztoetatik babesteko. Mitoaren arabera, errautsak hazia erein ondoren sakabatatzen ziren.

Ura ere tradizio haundikoa da Euskal Herrian. Urte Zahar egunean, 12 kanpaiak entzuten diren bitartean, herriko iturri publikotik ura edateko ohitura

mantentzen da oraindik ere zenbait herritan.


Juan Inazio Iztueta zaldibitarak jaiotzaren aurrean dantza egiteko gomendioa luzatzen digu, XVIII. mende bukaeran idatzitako Gabon abesti honek eskatzen digunez: Zarrak eta gazteak/ goazen bertatik/ Jesus adoratzera/ biotz biotzetik/ Guziok salbatzera/ jetxi da zerutik/ nor dantzatuko ez da/ Jesus

gaur zugatik.

Tradiziotik kontsumismora

Urruti xamar gelditu zaizkigu errito garai horiek. Kalez-kale, etxez-etxe eta baserriz-baserri gabon-eskean ibiltzen direnak asko dira oraindik ere; familiak elkartzen dira. Turroi, intxaur saltsa, indioilarra... Ondo jan eta edan. Baina kontsumismo izugarria izaten da urte sasoi honetan. Prezioak gora etengabe; poltsikoak behera etengabe. Haurrak liluraturik telebistako jostailuez. Eguberrien zentzua galduz doa piskanen, erritoak eta urte askoan ahoz-ahoz pasatutako tradizioak ahanzten. Sinismena galduz ote doa? Hori, aztertu beharreko beste puntu bat da.

 **Ander Mujika**




⇒ Eguneroko menua
⇒ Asteburuetan afariak
kartan

Tfnoa.: 88 39 60
Gudarien etorbidea
ORDIZIA



JOXEPANE
HERRI OSTATUA

★ Taberna
★ Jatetxea
Albisu Etxea ZALDIBIA



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Eguberri eta urte berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) BEASAIN
Tfnoa.: 16 11 05

Gabon pinu goierritarra

Gure artean ohitura berri xamarra bada ere, Gabon pinua edo izei gorria gero eta gehiago erabiltzen da Gabonetan apaingarri gisa. Ez daukagu oso urrutira joan beharrik non produzitzen den jakiteko: Ataun, Idiazabal, Segura, Mutilo, Lazkao, Olaberria... baina beriziki Zegamara. Ezinezkoa da, herri guztian dagoen gabon pinu ugariak konturatu gabe Zegamatik pasatzea. Bertan hazten diren pinu hauek Espainia guztira zabaltzen dira.

Dena den, ez da kasualidade hutsa pinurik gehiena Zegaman produzitzearena: mikroklima berezia dago bertan pinu mota hau hazteko; altuera eta freskura aproposa. Baserriko ohizko produktuek ematen zutena ikusirik, pinuarekin proba egiten hasi ziren orain 28 bat urte. Ordurarteko pinu arruntaren landareak alde batera utzi eta gabon pinua jarri zuten. Baserriarrentzat diru gehiago eta lan gutxiago ematen du, eta piskan-piskan, gabon pinua ugaritzen joan da. Aritzearen po-



Espainia guztira esportatzen da Zegamako gabon pinua

derioz ikasi dute baserriarrek ofizioa, eta emaitzak gero eta hobeak dira. Hazten den pinu guztia saldu da orain artean, beraz baserriko diru sarrera garrantzitsuenetakoa da gaur egun.

7-9 urte behar dira pinua saltzen jartzeko: 4 urte hazitegian eta 3-5 urte soroan, 80 zm. eta 2 m. artean hazi arte. Urrian hasten dira pinuak, sokaz lotzen, edo gaur egun gehiago sarean biltzen, abenduan errazago atera ahal izateko. Biltzeko garaian, lurrak hezetasuna behar du pinua ondo ateratzeko. Prozesu guzti horren ondoren, inguruko baserrietako pinurik gehienak Jose Domingo Ariztimuñoren almagazetetik pasatzen dira, komertzializatu aurretik. Bakoitzari jatorria, neurria eta abar adierazten duen etiketatxo bat jarri ondoren, Estatu osoko merkatal zentruetara saltzen dira.

Pinua sustrai eta guzti ateratzen da orain urte batzuetatik hona. Hau, garai batean bezala, jendeak mendian pinurik moztu ez dezan egiten da. Hori dela eta, pinu produktore guztiak erregistratuta, landaketa guztiak kontrolatuta daude.

L.A. eta M.A.



*Artesania
Opariak*

K. Nagusia, 28
☎ 16 02 48
ORDIZIA

BEGUÉ REDONDO JANARIDENDA

Berezitasuna janari eta fruitutan

Urdaneta 39 ORDIZIA
Nafarroa Hibilbidea 27 BEASAIN

GAROISKA

LOREAK, SENDA BELARRAK
ETA DIETETIKA GAIK

Kale Nagusia, 2

☎ 88 40 16

BEASAIN

Ñañarri taberna

Kale Nagusia 15 BEASAIN

☎ 88 06 59

ATAUN

Martin guardia jubilatuta da

Martin Aldasoro Begiristain "Martin guardia" erretiroa hartu berria da. Abuztuaren azken egunean 65 urte betetzearekin batera utzi zion Ataungo basoen zaintzari, lan horretan 30 urtez aritu ondoren. Praiskonen jaioa, Igondon bizi da ezkondu ezker eta bertan izan ginen kontu kontari.

Basozaina izan den arteko gora beherataz aritu arren, Ataungo mendiak zaintzeari utzi diola konturatu gabe bezala eta egitekoak dauden hainbat gauzen kezkaz azaltzen da, hala nola, Akaiztik Ormazarretarako pagadiaren egoera txarra, Maizi zeharra edo beste hainbeste txoko "linpieza premin" dau dela aipatuz.

Ataungo Udalak bere ordezkorik ez duela izango eta, berak ere ez du horren beharrik ikusten. Baina hori bai, Diputazioako basozain eta injenieroen ondoan, "udaletxeak mendin entenditzen dona" behar duela esaten du, "guardia, kontzejala!" gaineratuz, "udaletxenak dittuk ok eta". Baina, eta guk zirikatut arren, ezertaz hitzerdi bat gaizki esateari abileziaz aldeginenez, duela 28 bat



"Martin guardia"

Arg.: J. Begiristain

urte Aralarri buelta guztian moioiak sartu izana, edo guri izena ere ezezaguna egiten zaigun mendi bazter bateko kontutara itzultzen da Martin, dagoneko bere ardura "bihotzekoa" baizik ez dela ohartu ere egin gabe. Eta halako pinudiko ez dakigu zenbat hektarea tasatzera joan behar balu bezala hizketan eta bera jubilatuta izana zeini axola ote zaion bada, harriduraz agurtu gintuen.

Seguru asko ordea, Ataungo udalaren agindura izan den azkeneko "mendiko guardia" izango da Martin. Ekainaren 28an egindako bilkuran, Udalbatzak, Ataungo Udalak bere basozaina izatearen aldekoa zen HBren mozioa atzera bota zuen, Udalak eskatutako zerbitzuak Foru Aldundiko basozainek burutzearen aldeko proposamena onartu zelarik EA, EAJ eta EUEren botoz.

Joxemielen inguruan

Joxemiel hil zeneko III. urtemuga dela eta, Joxemiel Barandiaran Murkondo kultur elkar-teak prestatu duen ekitaldi egitarauaren barruan, irratizaleen 24 orduko saioa izango da abenduaren 17tik 18ra. Bitarte horretan gainera, irradi zaharren erakusketa bat ere ikusi ahal izango da bertan. Guztia, San Gregorioko eskoletan.

Abenduaren 23an, ipuin lehiaketako sari banaketa Joxemiel Barandiaran eskolan arratsaldeko 2.30etan, eta "Gipuzkoa 1915" diapositiba emanaldia udaletxean, iluntzeko 8.30etan.

✍ Joxe Begiristain

MGUAR

MONTAIA ELEKTRIKOAK

AKUMULADOREAK,
ALARMAK,
ATEZAINAK
ETA BERRIKUNTZAK
OROKORREAN

Lazkaomendi, 11 - 3. A ORDIZIA
Tfona: 16 01 58 - 88 86 88

-EZKURRA -ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA



Tfnoa: 885500 ORDIZIA

MIRENTXU LIBURUDENDAK

Berrikuntzaren ondoren berriro **Kale Nagusiko 1ean** ireki dugula adierazten dizue

Bide batez **Nafarroa Etorbidean** ere jarraituko dugula jakineraziz

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

☎ 881457 (Kale N.) 88 0455 (Nafarroa Etorb.)

BEASAIN

Alkartasuna Lizeoko berri

Oraindik arazoa pil-pilean dago Alkartasuna Lizeoan. Arazo honek eman duen azken berria abenduaren 3an egindako Batzar Nagusia izan da. Batzarraren helburua, pribatuaren aldeko biltzarkideen destituzioa izan zen batez ere. Beste bi gai ere aztertu ziren: 1992/93ko egoera ekonomikoaren azterketa eta ikastetxearen gestio soziala.

Hamabi orduko batzarra izan zen. Boto eskubidea izateko beharrezkoa zen akreditatzea, eta nahiko lan eman zuen horrek. Lehenengo bozketaren emaitzak, ponderazioa kontutan hartuta: pribatuaren aldekoek 590 lagun eta 366 boto; publikoaren aldekoek 634 lagun eta 435 boto. Beste bozketetan aldeak handitu egin ziren, jendeak alde egin baitzuen. Beraz, pribatuaren aldeko sei kideak kanporatuak izan ziren.

Batzarra publikoen aldekoek konbokatua izan zen. Kanporatuak izan ziren 6 kideek Batzarrean izandako ondorioak inpugnatu egin dituzte iruzur le-



gala egon dela esanez, prozesu guztian egindako tramiteak batere garbiak ez omen dira izan eta. Hala ere, pribatuaren aldekoek positibotzat jo dute botazioaren emaitza, 1994ko urtarrilaren 15ean baino 150 boto gehiago lortu baitituzte. Bestalde, publikoaren aldekoen iritziz, beraientzat ere positiboa izan zen Batzarrean lorturiko boto kopurua.

Mendiko karneten berritzea

Abenduaren 12az geroztik hasiak dira mendiko karneten berritze lanak. Aitzgorri Mendizale Elkartek karneta

ahalik eta azkarren eskatzeko gomendioa egiten du, urte hasieratik karneta eskurartean eduki ahal izateko. Mendiko karneta eskatu nahi duzuen guztiok astelehenetik ostegunera bitartean, 7.30etatik 8.30etara egin ahal izango duzue Arana kalean kokaturik dagoen Aitzgorri Mendizale Elkartean.

Zinearen inagurazioa

Hilaren 23an inaguratuko da azkenean Usurbe Antzokia. Egurdiko 12etan inagurazio ekintza ofiziala izango da. Eta iluntzeko 8.00etan, herriko kultur talde desberdinek estreinatuko dute. Partaideak, Loinatz Abesbatza, Aurtzaka eta Ostadar Dantza Taldeak, Udal Txistulari Banda, Musika Eskolako Akordeoi Orkestra, Udal Antzerki Tailerra eta bertsolariak izango dira. Hauez gain, hurrengo egunetan beste hainbat ekintza izango dira. Agendan duzu informazio gehiago.

 **Izaskun Salazar**

GABIRIA

Aldaketak Lierni eta Gabiriako bidegurutzean

Azaroko azken astean edo, amaitu ziren Lierni eta Gabiriako bidegurutzean egindako lanak, eta, harrigarria bada ere, aldaketa dexente egin dituztela adierazi behar. Hasiera batean, Lierniko bidea zabaltearen Gabiriakoari dexenteko puska kendu zioten, honen ondorioz nahiko estua geratu delarik Gabiriako goiko errepidea, oso estua ez esatearren. Baina honetaz gainera, orain arte lehentasuna Gabiriatik behe- ra zihoazenei baldin bazuten ere, hemendik aurrera Liernitik edo beheko errepidetik datozenek izango dute, hori adierazten baitu bista askoan jarri di-



guten STOP seinale horrek.

Erabaki hau hartu dutenek izango dituzte seguraski horretarako arrazoiak, baina bada kontraesan bat:

beheko errepideak baldin badu lehentasuna zergatik ez dute Eguzkitza pareko irteera hura zertxobait txukuntzen eta beheko bide horri lehentasuna ematen? Gainera kontuan izan behar dugu beheko errepidea dexente estuagoa dela eta mina dela eta, askoz ere kamioi gehiago ibiltzen dela.

Esanak esan, gauzak horrela daude eta, besterik ezinean, kontu haundiz ibili beharko dugu aldaketa horietara ohitu arte.

 **Gabino Murua**

Lazkao kultur ekintzez blai

Udaleko Kultur Batzordetik aurtengo Gabonetako Kulturaldiaren berri jaso dugu; abenduari amaiera eta urte berriari ongietorria kultur-salatsan ematea ez dago gaizki!

Abenduaren 16, 17 eta 18an, euskal liburu eta diska azoka izango da Udaletxeko arkupeetan, Gerriko liburutegien lankidetzarekin. 17 eta 18an, arratsalde, 3. BBBko San Benito Ikastolako ikasleek gaztainak erreko dituzte.

Hilaren 20an, arratsaldeko 8.30etan, Bernardo Atxagak eta Felipe Barandiaranek eskainitako testu irakurketa, San Benito Ikastetxeko Areto Nagusian.

Hilaren 23an, arratsaldeko

7.30etan, Lazkao Abesbatzaren eta Lazkaoko Haurren abesbatzen emandua Parrokian.

Hilaren 25ean, eguerdian, Jaiotza Biziduna Zawopiren eskutik Enparantzan.

Abenduaren 27, 28, 29 eta 30ean eta urtarrilaren 2, 3 eta 4an, goizeko 11etatik 13etara, haur jokuak Kiroldegian, marrazki eta pintura tailerak eta arratsaldero pelikula emanaldia Udaletxeko Areto Nagusian.

Abenduaren 28an, gaueko 9.30etan, Maskarada antzerki taldeak 'Kontrabajua' antzeslana eskainiko du, San Benito Ikastolako Areto Nagusian.

Urtarrilaren 5ean, Erregeen Me-

zularia herrian ibiliko da eta arratsaldeko 7.00etan Errege Kabaigata izango da.

Urtarrilaren 7an, Kiroldegian bertso jaialdia izango da Lazkao-Txiki bertsolariaren omenez. Eta 8an, Astotxo Eguna. Informazio gehiago hurrengo alean emango dizuegu.

Maizpideko kultur ekintzak

Maizpidek ere antolatu ditu datoen egunetarako hainbat kultur ekintza. Abenduaren 20an esaterako, Joxe Ramon Elortza eta Xabier Zeberio bertsolariak izango dira.

 Mari Joxe Madariaga

OLABERRIA

Adin guztientzako denbora pasak

Gabonak gertu-gertu dauzkagu eta gehienontzat patxadan egoteko egunak dira. Egun hauek ondo aprobetxatu asmoz, 6-13 urte bitarteko umeentzako gabon tailerrak antolatu dira abenduaren 26tik 30era. Orduetgia, goizeko 10.30etatik 12.30etara izango da. Ikastaro hauetan gauza ugari ikasteko aukera izango dute haurrek: gatzeta eta klarionarekin eskulanak gin, mozorroak, txotxongiloak, paper eta kartulinazko gauzak, joku majikoak, etab.

Bestalde, abenduaren 26 eta 27an Iparraldera bidaia bat egiteko asmoa da. 16-25 urte bitarteko gazteentzat da berau eta joan nahi duzenok 1.000 pezeta ordaindu beharko dituzue. Ize-

na emateko azken eguna abenduaren 21a da eta NAN-aren fotokopia aurkeztu beharko duzue Liburutegian eta Udaletxean. Bidaia autobusez egingo da eta ondorioz, jende kopurua mugatua izango da. Beraz, lehenbailehen izena eman! Bi egun hauetan, Donibane Garazi, Kanbo, Sarako kobazuloak eta beste leku batzuk ikus ahal izango dituzue.

Eguberri bezperan abestera

Aurten ere abenduaren 24an abesten ateratzeko asmoa dago. Horretarako entseiuak ez direnez batere gaizki etorriko, bertara joan nahi duzenok abenduaren 16 eta 23an, arratsaldeko 7etan, lurreko eskoletan daukazue zita.

Yoga eta zeramika ikastaroak

Bi ikastaro hauek urtarrilaren 10ean hasiko dira. Ikastaroa hiru hilabetekoa izango da. Astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7.30etatik 9.00etara. Zeramika ikastaroa berriz, asteartean izango da 15.00etatik 18.00etara. Bi ikastaro hauetan parte hartu nahi duzenok, izena abenduaren 22a baino lehenago eman beharko duzue.

Jubilatuek ere hemendik aurrera izango duzue denbora pasatzeko leku ederra, zuentzako egoitza hilabete honetan zabaltzen baita.

 Nagore Goiburu




RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO



Nahi duzun argazkia inprimatuko dizugu zure kamixetan
Domingo Unanue Plaza
☎ 88 93 25 ORDIZIA

**JAUREGI
TOLDOAK s/n**

Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN

Udaleko berriak nabarmen

"Villa Eugenia" inguruko lurak Jakintza Ikastolari saltzea erabaki du Udalak azken Osoko Bilkuran. Aipatu behar da EAJ, HB eta EA horren alde agertu ziren, eta PSOE eta Talde Misto, berriz, aurka. Lur-saila 738 metro karratukoa da eta ez saltzearen aldekoek salmenta baino eskura uztea dela esan zuten.

Bestalde, Udalak ONG ezberdinekin sinatu berri ditu aurtengo dirulaguntza eskeintzearen kontratuak. Guztira 6 milioitik gorako taloiak banatu zitzaizkien. Pozik geratu ziren Erakunde Ez Gubernametaletakoak.

Ordiziako Azoka Vs Tolosakoa

Bada halako lehia bat azkenaldian bi merkatu hauen artean, izan ere Tolosako larunbaterokoa gorantza bait dihoa. Ordiziakoa da zaharrena, lehen perretxiku eta ehiza-gaiena, arkume eta untxi mogimendu handienekoa, lurraldeko harategietan salneurria gureak markatzen du, gazta salmentaz zer esanik ez. Beste herrietan ere espabilatzen ari direla eta hemen geldirik egoteko ez dago jendea. Ordiziako Udalean idea anbiziotsu bezain isilpe-



"Immigrazio eta arrazismoa" izenpean jardunaldiak burutu dira abenduaren 12tik 17ra.

koak daude, Juanbi Erauskin eta Jesus Mari Larizek esan berri dutenez. Noski, marketina ere egiten hasi behar dira.

Aurrekoarekin loturik-edo, Azoka aspaldidanik "ikusit" duen eraikinaz mintzatuko gatzazkizue orain. Enparantza Nagusiko Estanko etxearen

(edota garai bateko Posta etxearen) errestiturazio edo berrabiltze lanak hasiak zirela aipatu genizuen aurreko alean. Dena den, etxearen aurrekaldeko pinturak uste baino egoera okerragoan daudela eta hori dela eta lanak luzatuko direla dirudi.

Jon Iturrioz Txinatik bueltan

Jon Iturrioz ordiziar urpeko igerilaria ospatu berri diren Txinako Mundialetan izan da. Honakoan ere, ohiturik gauzkan bezala, izugarritzko markak lortu zituen: eskuhartu zuen 4 probetatik 3tan urteko marka apurtzea lortu zuen. Dudarik gabe, 4x200 proban lortu zuen emaitzik hoberena. Estatuko selekzioak 7 marka hautsi zituen eta 40 partehartzaileen artean sailkatu zen.

Pilotarekin eta "Beti Alai" frontoiarekin loturik egon den tabernak itxirik zerraman denboralditxo bat. Orain jabe berriak ditu "Boga-Boga" izena hartu duen tabernak: Asier Odriozola eta Iñaki Otegi, hain zuzen.

✍ Aitor Calvillo eta J.A.

ORMAIZTEGI

Ormaiztegiar akordeoijoleak Arrasaten

Herriko Musika Eskolan dabilzan hainbat ikaslek, Arrasateko akordeoi lehiaketan parte hartzeko aukera izan dute aurtengo. Proba honek, geroz eta garrantzi handiagoa du eta parte hartzea berak ere, ez du gutxi esan nahi.

Arrasateko akordeoi lehiaketa honek, 3 atal desberdin izaten ditu: nazioarteko lehiaketa, Gipuzkoako lehiaketa eta azkenik, Gipuzkoako jaialdia deritzona. Gure akordeoilari gazteek azken proba honetan hartu zuten parte, bakoitzak bere adin eta berezitasunen barruan jo zutelarik.

Naikari Agirrek folklore mailan hartu zuen parte. Haritz Maiz, Saioa



Ugarteburu eta Aimar Maizek, hasiberriena atalean jo zuten. Laurek epailek jarritako derrigorrezko pieza jo zuten. Oroitz Maizek berriz, derrigorrezko

obra bat eta beste libre bat jo zuen. Bikoteen mailan, bi bikote aurkeztu ziren. Alde batetik Etxaun Gorrotxategi eta Oihane Arratibel, eta bestetik, Maria Urdangarin eta Naikari Agirre.

Aipatutako soinu-jole guztiak proba bukaeran, zilarrezko dominatxo eta diploma jaso zuten egindako lan txukunagatik. Zorionak guztiei. Baita beraien atzetik dabilzan irakasle eta gurasoei ere, auspua infernukoa bada ere, ez isiltzen laguntzeagatik.

✍ Jon Aldanondo

San Bartolome eliz ingurunearen berritze lanak

Itsasoko gunea aspalditik konponketa beharrean zegoela eta, bada bi hilabete pasatxo lan honi ekin zitzaioela. Honetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hirigintza eta Arkitektura Departamentuak, Hirigune Interesgarrietako eta Fatxadak Konpontzeko eta Hobetzeko erregulatzen duen Foru Egitasmoari heldu zaio.

Hori horrela, Diputatuen Kontseiluak joandako ekainaren 28an Ezkio-Itsasoko Udalari 3.000.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki zuen, San Bartolome elizaren ingurua birgaitzeko. Eliza behe aldeko espaloia eta haren pareko plaza aldekoa jada aurrerratu xamarrik daude, argiteria berria, ur kanalizazioak... barne direlarik. Honez gain, plazako zorua harri-lauzez estaliko da eta eserleku berriak ezarriko; lehengoan utziko dira lorategia eta lau ezki-arbolak.

Lan hauek Udalak dituen langileekin burutzen ari dira, gastuak murriztu asmoz. Guztira, hala ere, 10.202.442 pezetako aurrekontua du eta Ezkio-Itsasoko Udalaren gain 6 milioitik gora izango dira. Beste urteren batean helduko omen zaio Itsasoko gunea konpontzeko eta hobetzeko proiektu osoaren bigarren zatia, Goiko Ostatu in-



guruko plaza berritzeari, alegia.

Ikastaroak

Kultura Batzordeak datorren urteko lehen hiruhilabetean izango diren ikastaroen egutegia finkatu du:

- Urtarrilaren 14an hasita, Jose Luis Gonzalez idiazabaldarrak Santa Lutziko Kultur Etxean zestogintza irakatsiko du.
- Egun beretik aurrera, Itsasoko Pott Keramika Eskolan Maitek eta Jonek ostiraletan helduentzat eta larunbat

goizetan umeentzat zeramika ikastaroak eskainiko dituzte 3. urtez.

● Gainera, eta Kultur Etxean, Urretxuko Irrintzi Dantza Taldekoekin dantza sueltotan aritzeko aukera izango da.

● Azkenik, iaz Herriz Herri Informatika enpresak hasi zuenari jarraituz, Udalak aurten ere Kultur Etxea erabiltzen utziko dio talde horri 'Windows' irakats dezan.

 **Pilare Mujika**

ZALDIBIA

Eguberri atarian ekintza ugari

Eguberri atarian, hamaikatxo ekintza antolatu ditu Zaldibiako Udalak. Hasteko, **hilaren 16an**, Virginia Imaz ipuin kontalariaren eskutik, ipuin ordua izango da Udal Liburutegian arratsaldeko 2.30etan.

Hilak 18, Beasaingo abesbatzak goizeko 11etako Mezan kantatuko du eta ondoren, Elizan bertan kontzertua eskainiko du. 12.00etan, Resti pilotalekuan, ETB-DV.ko Pilota Torneoa dela eta, lehen mailako afizionatuen semifinala jokatu da. Zumarragako Urretabizkaia anaiak Olaizola-Almandoz nafarren aurka.

Abenduak 21, 'Ilun antzerkia', 3. 20-GOIERRITARRA

eta 4. mailako antzerki tailerreko lanaren azalpena izango da. Antzezlan hau bi saiotan azalduko da, arratsaldeko 3etan eskolako haurrentzat eta arratsaldeko 6.30etan helduentzat.

Abenduak 24, Gabon egunean, arratsaldean, Iztueta Dantza Taldea herriko kalean zehar ibiliko da eta bukarran plazan, Dantza saio laburra eskainiko du.

Abenduak 31, Oroith abesbatzaren emanaldia izango da arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara kaleetan zehar.

Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era, Gabonetako iharduerak izango dituzte 3 urtetik 12 urte bitarteko hau-

rrek. Eta urtarrilaren 6an, goizeko 11etatik 2.30etara eta arratsaldeko 4etatik 7.30etara haur parkea zabalik egongo da.

Iztueta heriotzaren 150. urteurrena

1995eko abuztuaren 18an Juan Inazio Iztueta hil zela 150 urte betetzen dira. Zaldibitar honen omenez hainbat ekitaldi antolatzeko, Udaleko Kultur Batzordeak interesgarria ikusi du batzorde berezi bat osatzea. Batzorde horretan parte hartu nahi duenak izena Kultur Etxean abenduaren 30a baino lehen eman behar du. Telefonoa, 160338.

Abendua indarrean iritsi da!

Abenduarekin batera Idiazabala iritsi den ekintza sorta ez da txantxetako. Azaroaren 27an Bittoriano Telleria omenduz hasi eta Gabonetaraino antzerki, kofradia, ziklokros, inaguraketa eta beste zenbait ekintzez jantziko du gu gure herri txikia.

Hilaren 8an eta HB-ko zinegotzi den Alberto Aldasorok esan digunez, herrian bildotsaren kofradia osatu zen. Bildotsaren krofradia, esparrago, piper txorixo eta beste zenbait jakiren kofradia bezalakoxea da. Bildotsa, hemen bertako produktu jator eta berezia izaki, nolabait goratu eta ospez josteko egiten da batipat. Gainera, beraren bidez ekoizpenean inongo eraldaketa eta kimika prozesurik jasan ez dezan ba-besteko eta ongi komertzializatzeko lagungarri izaten da.

Alberto Aldasorok esan digunez, kofradia sortzea gauza berezia da eta produktuari ospea emateko marketing piska bat egin behar izaten omen da. Horretarako, Idiazabal udalerri izanik, Udala 'inbolukratu' egin da produktuari onespina emateko eta urtez-urte defendatzeko. Artzaiek hartzen dute parte eta azkenik ohorezko kofrade izendatzen dira azken urteko txapelduna, Joseba Tapia trikitilari ospetsua eta Arrospide aizkolaria. Hauek bildotsa eskutan hartu eta zin egin zuten produktu hau defendatuko zutela munduan zehar zebiltzan edozein lekutan.

JOXE ELORZA
"JOXPI" REN ALDEKO
BERTSO
JAIALDIA



1994
ABENDUA
17
LARUNBATA
10.30 ETAN

S. LIZASO
EGANA
EUSKITZE
PENAGARIKANO
MENDIZABAL
F. GOIBURU

IGARONDO PILOTALEKUAN
IDIAZABAL

GOIERRI ETA INGURUKO HERRIETAN SARRERAK SALGAI

Bertso-saioa 'Joxpi'-ren alde

Datorren 17an berriz, bertso saio apartaz gozatzeko aukera luzatu nahi dizuegu. Izan ere, tamalez oraindik ingresaturik dagoen Joxe Elorza 'Joxpi'-ren alde herriko lagun talde bat lanean ari da, berau sendatzeko behar den diru sorta ikaragarria lortu asmoz. Bertsolariak Egaña, Euzkitze, Murua, Peña, Mendizabal eta Goiburu herri-tarra izango dira, hilaren 17an, gaueko 10.30etan herriko Igarondo pilotalekuan.

Urteko azken mendi ibilaldia

Hilaren 18an, Idiazabalgo mendi elkartek bere azken ibilaldia itsas ertze-

ra bideratu du ohi bezala. Ibilaldia Zumaiñan hasi eta Orion bukatuko da, tartean Getaria eta Zarautz aldeko gainak pasatuz. Goizeko 8.00etan abiatuz herriko plazatik, egun osoa igaroko da kostaldean, beraz norberak bere jana eraman beharko du.

Gaztaren ingurukoak

Hilaren 21ean, Santo Tomas eguna, gaztai dastaketa eta Idiazabalgo gaztaren zehaztasunen aipamena egingo da, Idiazabal Jatorrizko Deiturako eta Artzai Gazta elkarteko teknikarien eskutik, Zaharren Egoitzan arratsaldeko 8etan.

22an berriz, Idiazabalgo museo proiektuaren aurkezpena, Gurutze Aranburu eta Maitane Urteagak eskainia, Kultur Etxean 19.00etan. Eta hilak 23, goizeko 10.30etan, Artzai Gaztako asanblada izango da. Ondoren eguerdiko ordubatean, Artzai Gaztaren lokal berriaren inaguraketa, udaletxe azpian. Guzti hau alaitzeko bertsolariak izango dira eta 14.00etan bazkaria.

Baserriz-baserri

24an ohitura den bezala, herriko Gazte Asanblada inguruko baserriak alaitzen saiatuko da. Aurten 'Joxpi'-ren alde jasoko dute dirua.

✍️ Aloña Galarraga

**Carasa, Cilveti,
Lacort y Cia., S.A.**
Aseguruen Korreduria
Martin Alustiza

Ekaitz Bulegoak ☎ 88 69 53
Domingo Unanue, 3 ORDIZIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



Gero jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

GOIERRITARRAN FAX BERRIA DAUKAGU:

88 29 17

Gabonetako programazio berezia Segura Irratian

Aurten ere ahalegin berezia egingo da Segura Irratian gabonetako programazioan aparteko saioak irratiratu ahal izateko, Santo Tomas egunez hasita errege egunerarte. Egungo gaien azterketari ekingo diote goizeko magazinean. Jende adituak elkarriketatzear gain, entzuleen iritzia eta parte hartzea bultzatuko dute saio honetan. Haurrei ere protagonismo berezia emango zaie. Gainera, elkarriketa pausatu eta sakonei ere garrantzia handia eman nahi diete; hala, Euskal Herri mailan arlo ezberdinetan oso ezagunak diren pertsonaiak aukeratu dituzte: Joseba Intxausti, Txillardegi, Xabier Erro, Juan Mari Irigoien, Mari Karmen Garmendia, e.a. luzea. Hontaz gain, Gabon arratsaldeko eta Urtezahar arratsaldeetako urteroko gonbidatuz betetako saio umoretsua.

Iñaki eta Ibon beste final batetan

Iñaki Artola eta Ibon Etxeberria Gipuzkoako klubaren arteko ligako finalera iritsi dira, azken partiduan Karrete eta De Santos altzatarrei irabazi ondoren (22-20 Altzan eta 22-6 Seguran). Final



Ibon Etxeberria eta Iñaki Artola txapeladunorde aurten Usurbilen jokaturako torneoan.

la hilaren 16an gaueko 9.30etan jokatuko dute, Oñatin, Berraondo eta Idiakez antzuolatarren aurka. Liga bera jokatzen ari da Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Errioxan. Herrialde hauek 3 bikote onenek beraien arteko beste liga bat jokatuko dute eta txapelketa honetako irabazleak Iparraldeko txapeladunen kontra neurtuko dira bi partidutara izango den final handian. Final handi hau lehen ere irabazia du

Ibonek, 91-92an, Xabier Imaz lagun zuela. Makina bat partidu badaramatzate aurten elkarrekin jokatutako Iñakik eta Ibonek. Herrietako festetako hainbat partiduz gain, Usurbil, Añorga eta Antiguoko txapelketetan ere parte hartu dute, finalerara iritsiz.

Nahiz eta kanporatuak egon, segurar gehiagok ere parte hartu dute honakoan: gazteen mailan Eñaut Telleriak eta Iñigo Otegik, eta junior mailan berriz, Egoitz Berasategik eta Jon Ander Hombrek.

“Bidetxur” berria

Segurako HBren aldiria-riaren ale berrian herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen hainbat gai azaltzen dira, hala nola, aurki eraikitzen hastekoak diren babes ofizialeko etxeei buruzkoa, urbanismoko arauen ingurukoa, herritarren ur kontsumoari dagokiona, aparkalekuen arazoa eta arazoezak, “Ba al dakizu?” saila, laister Akonkaguara doazen bi herritarrei egindako elkarriketa, e.a.

Joseba Telleria

LEGORRETA

Eguberriko kontuak

Aurten ere konturatzerako urte bukaerara iristen ari gara eta eguberriak ere gainean dauzkagu jada. Eguraldia ere, garai honetarako ohizkoa ez den bezalakoa daukagu, eta ez litzateke harriztekoa izango Olenzero bera ere manga motzean agertuko balitzaiguke.

Usadioei jarraituz, Eguberri bezperan herriko gazte eta ez hain gazteak baserriz-baserri atera ohi gara kantuan presoen alde dirua biltzeko asmotan. Bazkalondoren elkartu eta bi taldetan banatu ondoren, Legorre-

tako auzo desberdinetako baserriak alaitzen ditugu kantuz. Hauekin batera, Itsasondo, Ikaztegieta eta Aldabako zenbait baserri ere bai. Baserri hauek etxeoandre eskuzabalek eskeinitako txoixo, pasta, ardo, e.a.-ekin eztatia bapo gozatu ondoren jeisten gara iluntze aldera berriro herrira, bertan jende gehiago biltzen zaigula. Gabon gaua ondo igaro dezatela opa izaten diegu herritarrei. Aurten parte hartzeko interesaturik bazaudete, adi egon urtero bezala entsaioak izango baitira.

Bi herritar “Maite” filmean

Joxe Ramon Soroiz eta Xabier Agirre aktore legorretarrak izango dira Cuba eta Euskadiren arteko produkzio honetan lanean. Maitasun istorio baten barnean, angulak eta puru habanoen arteko negozioak izango ditugu ikusgai. Filmea estreinatu berria da, eta adi egon aukera polit hau galdu nahi ez baduzue.

Josune Amondarain

AMAIA INSAUSTI OLABERRITARRA 2. BEHOBIA-DONOSTIAN

“Hobetzeko distantzia motzean saiatu behar dut”

Gure kaleetan korrika bizian ikusten duzun neskatoa, horixe duzu Amaia Insausti. Egunetik egunera markak hobetzen ari da. Aurten Donostia-Behobia lasterketa herrikoian 2. egin du emakumezkoen kategorian, ordu bete eta 14 minutuko denborarekin.

Galdera.- Noiz eta nolatan hasi zinen korrikan?

Erantzuna.- Nire anaiak Behobia-Donostia prestatzen zuen eta ni ere berarekin hasi nintzen, orain 2 urte t'erdia. Astean 3 aldiz hasi nintzen anaiarekin korrika egitera joaten. 8 km... egiten nituen. Buruan sartu zitzaidan nik ere egin behar nuela. Oso burugogorra naiz eta zerbait gustatzen baldin bazait, ia obsesionatzera iristen naiz. Hirugarren Behobia korritu dut aurten.

G.- Bi urte t'erdian horrelako maila lortzeko...

E.- Beasaingo Patxi Aiestaranek gustora ibiltzen nintzela ikusi zuen. Tolosan Iñaki Arratibel medikuarekin esfortzuzko proba batzuk egiteko esan zidan. Oxigenatzeko kapazidadea oso ona neukala eta berarekin entrenatzen hasteko esan zidan. Urte t'erdia inguru daramat Arratibelekin. Kontrol hori eramango duen norbait beharrezkoa da. Ez da korrika bakarrik egin behar. Gimnasioa, serieak... berak markatzen dizkit. Dena kontrolatzen du. Pulsoa, janaria...



G.- Zer korritzen duzu? Zertarako prestatzen zara?

E.- Behobia baino lehenago beste esfortzuzko proba bat egin nuen. Fondoa oso ona daukadala esaten didate. Entrenamendu luzeak gustora eta erraz egiten ditut. Baina hobetzeko distantzia motzetan aritu beharra daukat, bestela estankatuta geldituko naiz. Krossa eta pista egingo dut seguruenik. Orain maratotoian dabilzanak krossean ibili dira eta zerbaitegatik izango da. Iaz zerbait egin nuen eta niretzat oso gogorra da 4 edo 5 km. 'a tope' egitea.

G.- Zein proba korrituko dituzu?

E.- Aurten Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketan dexente xamar ibili nahi dut. Euskadiko selezioa egiten dute Estatuko txapelketarako, eta ea hor sartzen naizen. Gasteizen izango da Estatuko txapelketa hori. Krossean defenditzea besterik ez dut eskatzen.

G.- Ze entrenamendu egingo duzu hemendik aurrera?

E.- Kilometro gutxiago eta serieak egiteaz gain, sei hilabetetan gimnasioan orduak sartu behar ditut. Hanka indartzeko beharrezkoa da hori, batez ere neskotzat.

G.- Neskek txikitan kirola egin eta urte batera iritsiz gero, utzi egiten dute. Zuk alderantziz egin duzu.

E.- Berandu hasi naiz, baina fondorako ez da berandu. Maratotoian dabilzan onenek 30 urte dauzkate. Askok esaten dute txikitan ez dela prestakuntza onik izaten. Nik pentsatzen dut suertea izan dudala. Patxiarekin hasi nintzen segituan eta ondo.

G.- Normalean mutilekin entrenatzen duzu. Neskari ez al duzu aurkitzen?

E.- Korrika egiten duen neska oso gutxi dago. Futbol zelaian ibiltzen dira korrika egiten dutenak, handik ateratzea lotsa ematen die. Niri ere lotsa ematen zidan hasieran, baina taldean hasi eta ahaztu egiten da hori.

G.- Mutilen baten aurretik neska bat gelditzeagatik pikeak sortzen omen dira.

E.- Baina lagundu ere asko egiten dute, baita jendeak animatu ere. Denetarik dago. 'Neska batek ez irabazteko niri...', askok esaten dute. Mutilak korrika egiten ikustera ohituta gaude, baina neskak oraindik ez. Lotsa da horren arrazoia nire ustez. Gurea da errua.

 Loinaz Agirre
Mikel Albisu

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA

Eguren Jaunen Metodon 4. partea Cegamaco escuerean

Iñaki Segurola Urolako filologoaren bidez, joandako mendeko Klaudio Otaegi zegamar irakasle, itzultzaile eta idazlearen idatzi bitxi eta eder batekin egin dugu topo Bonaparte printze euskaltzalearen bilduman. Ez dakigu noiz itzuli zuen Otaegik orain arte argitaragabe zegoen liburu hau euskarara, itzulpena berea bada behinik behin. Baina argitalpen bat baino gehiago izan dituen euskal-erderazko hiztegia edo metodoa egiterakoan zegamarrak Eguren jauna lagundu zuela badakigu. Eskuizkribua Aldundi-ko liburutegian dago mikrofilmaturik.

Eskuizkribua Zegamako euskaraz ematen da. Ikus daitekeen bezala, laburpenak, murrizdurak, hotsen galerak eta aldaketak ugariak dira, beti ere Bonapartek eskatzen zituen baldintzak betez, testua euskalkia aztertzeke baliagarria gerta zedin. Hasieran esaldi zerrenda luze bat dakar, gortesiazko esaerak, e.a. Ondoren, kapitulu bakoitzaren izena edo “burua” idazten du eta ondoren horri dagozkionak, arrazoi burutsu eta “perla” ugari, irrirako, xelebrekerietarako prestatzen diren asko aurki ditzakegularik bertan.

Lurlantza: Lurlantzea zaco añ bearra guizonai, nun bera bae ecin vicico litzequen. (...)Landarec jayo, aci ta iltzen die, ta oneati do on vicie animalinan antza. Necazarie lurren ereiten don acie eusquin berotasun ta urec ematen don bustiantzaquin biuntzen da, eta acitzen do lurreti campora irtetzen don quirten bat. (...)Zañek chupatze itu alimentuzco sustantziz betea daon ure, landaren savie formatuz, cein dan animalitan odola becela. (...)Ganaderie izanda necazaitzen oñe, ganadu janan contuc euqui bear do beñepeñ necazari onac, ganadu jani pae eliteque izan aciendaic. Lurren calidade, climen goraberac eta gure baztarra titun condicio diferente batzuc eracusten doe.

Nekazariri comeni zacon animalic eta on prochuc: Beye da gure necazaitzea eiteco moduraco animalic prochugarriena, bera asko da lurrec lantzezo, eta gañera emate itu esnea, mantequea eta jateco araguie. Beye castu guchiquin acitzen da tâ asco ematen do, icullun garbitasun aundie ta belar onac escatzen ditu, gañera dempora onaquin larrera etaraz. Bide onen carga aundi eamateco irie ohea da bê indar ta irauteati; baño



gure menditan cargac eabiltzezo ezta eoquie bre corputz tajun medioz. **Cherrrie** da prochu aundico animal bat, ta jaten do ematen zacon guztie eta la mantentzen da castu guchiquin, onen pusca guztic ondo aprovechauta, ba onen araguie da familiraco launtze aundi bat. Berez añ ciquiñe dirudin animal ontan añ bearra da garbitasune nola bestetan, ba onec pacarric asco launtzen dio acitzen ta guizentzen. **Olooa** guztiz prochugarrie ta emallea da baserri baten, ba bê manteneue campon guchi costatzeaz gañea, urte batez beste emate itu 50 arrautza. Usoc etâ atac e emate itue prochun batzuc baserri batzutan; baño nolaco lecue dan contun euqui bear da ematen doena baño gueiago costa ez ditecten.

Prochuzco intsectoc: Erlea da arrautzati jayotzen dan insecto chiqui bat; arrigarrie tie aren ingenioa, lan einaye ta obedientzie; eta ren ezte ta arguizaye valio aundico tie. Erlec vici die alcarrequin erreguiñen menden, ceñ dan beste pecelaco bi aundi, etâ rec gobernatzten ditu ta aintzen die besteai, cargu au izanda bere eiteco bakarra. Erle bacoitze titu 20 millati 40 milla erle bearguille, eta 1800 erle ar, listorrac deitzenac, ezten baec eta bearric eiten ez doenac. Erle bearguilletaco batzuri ibilcarin icena ematen zaye, campora irtetzen doelaco ezte ta arguizaye eiteco comeni zayen lorac bitzera, eta besteai obraguillena (sic) ezte iten bacarric aitzen dielaco. Languillec iltze itue listorrac jayota 45 eunera, gueianen uztaillen; ill onen aizquen aldera arrapatzen e die erlecumac, ceintzu tien erlen umec. Erlen ezte eiteco modue maravilla ba ta. (...)Serea eiten don arra da, erlea becela arrautzati jayotzen dan insecto bat, eta lau aldiz narrue mudau ta guero arretik chipilota eiten da”. “Capullu”-etaz ere ari zaigu...

Beste animali batzuc: Zaldie da mundu guztin ezautzen dan animal bat bere prochu aundiati; Zaldi genero desberdiñe padie ta da animal inteligen-tea, prestue ta obediente, ba añ indartsue ta valiente izanatic, eracusten zaco ta obeditzen do, emacumen menden sartzerano. **Astoa** da guizonantzat prochu aundico animal mantso bat; beste paño gueiao da bere eaman ta guchi bearrati ta da launtze aundicua mandazaiantzat eta necazari pobreantzat.(...) astae-men esnea eraten da erremediotzat eta animal onen narruc servitzen do galbayec, atabalac, pergaminoc eta zapatac eiteco. **Chacurre** da animal guztitan prestuna, leyalana ta cariñosona; izugarri instinto aundie do, ezautzen ditu arritzezo modun nausin deseoc eta izaten dio bestec ez becelaco cariño bat. Morroirie onena peciñ ondo ondo bê nausin echeri contu eiten dio, cer eiten don chit bearricoa, ala re gure baserritan, bê genio onac aztu eraiten dio eiten zacon charqueric, eta miñasten do castigatzen donan escue. (...)Bê janarie, oguibeltz eta gogor batera urritue, chit catu guchicoa da. Chacurrec guztiz usai fiñe do; usaiti ezautze itu ceñ bideitati pasatu dien erbie, eperra ta gañeracoac; eta arrasto oni seguita topatzen do eize, au arquitzen dan lecun gueldituz nausic il dezan. **Catue** da inclinacio charretaco animal bat. Saguec iltzezo genioa dona, ceñzun etsairic aundina dan; arrazoi oneati euquitzen da echetan, bê gañeacoe estimacio chiquicoa da. Guztiz gogorra da, esquerbaguea ta lapurre; irinchten ditu bê umec eta mortificatze itu bê mendeco beste animalic; atzamarca eiten dio bêre nausiri, eta jaten ematen dionai berai e, eta arrapatzen do al don guztie naiz ez izan premic. Catuc guztiz traidore tie, eta la da nola ez doen beñe cara cara beiratzen; arguic ofenditze itu eta gaeuz beste animal paño obetogo icusten doe; chit lo guchi eiten doe, eta amar bat urten becela vicitzen die.

“Osasune gordetzeco modue”, “Ehecho zurtasune” eta “Cortesie” izeneko atalak ere baditu, jator askoak. Denak batean ezinda, hurrengo batetan argitaratuko ditugu.

Jon Arano